

KANALAK

Informazioa partekatzeko gure enpresak 3 kanal izango ditu:

INFORMAZIOA

Sareen bidez eta publizitatearen bidez bezeroak lortu eta mantenduko ditugu, haiei informazioa emanaz.

- **ONLINEKO PUBLIZITATEA:** Sare ezberdinen bidez, bezeroen arreta erakartzean datza:
- **INSTAGRAM-ko IRAGARKIAK:** Instagram-a gaur egungo sare ezagunetarikoa da eta publizitatea nagusia hemen kokatuko dugu. Aplikazio honen bidez gure produktua bezeroei aurkeztu ahal izango diegu Instagrameko iragarkiak erabiliz. Horrekin batera, bezeroek gure produktuan interesa izanez gero gure kontura jo baino ez dute behar: @facelock.
- **TELEBISTAKO IRAGARKIAK:** Telebistako iragarkiak ere egingo ditugu, hasieran herriko telebistan eta gero estatuko telebistan. Jende gehiagori heltzeko eta jendeak gure produktuaren berri izateko.
- **PAPEREZKO PUBLIZITATEA:** Inprimatutako euskarriekin egiten den publizitatea da, hala nola, egunkariak, aldizkariak eta liburuxkak. Gure kasuan, Correos bidez egingo dugu eta herri eta hiri ezberdinetan banatuko dugu, gure produktuari buruzko informazioa emanaz eta balio proposamenak azalduz.

EBALUAKETA ETA SALMENTA

Gure bezeroek argi izango dute gure balio proposamena, marketing kanpainaren bidez jakinaraziko diegulako. Etxebizitzetako ateak ziurragoak eta erosoak egiteko, aurpegiarekin irekitzen diren ateak. Hau, gauza berri bat denez, jendeak interesa erakutsiko du eta gure webgunean sartuko dira. Hemen gure produktuaren informazio guztia aurkituko dute. Webgune hau ondo funtzionatzeko, dinamikoa ulergarria eta interaktiboa izan behar da, eta horrela egingo dugu, batez ere pertsona nagusiak gure produktuaz fidatzen direla ziurtatzeko.

EROSKETA OSTEAN

Bezeroak lortzea oso garrantzitsua da, baina bezeroak mantentzea are garrantzitsuagoa. Gure bezeroak gure produktuen azken aktualizazioak eta ateratako azken produktuen berri izango dute Gmail bidez eta deskontuak izango dituzte hurrengo atea erostean. Bigarren atea %30 deskontuarekin. Atearekin arazoak egonez gero zerbitzu teknikoarekin harremaneta jartzea ahalbidetuko diegu bezeroei.

BANAKETA KANALAK

5 furgoneta erabiliko ditugu banaketak bideratzeko. Instaladore berdinak eramango dituzte furgoneta guztiak eta bertan eramango dituzte atea instalatzeko beharrezkoa den guztia.

SALMENTA KANALAK

Bezeroak transferentzia baten bidez ordainduko digute. Lehenengo instalazioa egingo dugu eta gero ordaindu egingo digute. Hala ere, instalazioa egin baino lehen aurrekontu bat pasatuko diegu.